

DIRU ITURRIAK

Gure **diru iturriei** dagokienez, hasteko bost bazkideon artean jarritako 5.000€-oz baliatuko gara. Behin app-a martxan jartzean, hau deskargatzea dohain izango da eta baita izena ematea ere. Edonola ere, produktu bat erosterako orduan, bezeroek **bidalketa-gastuak** ordaindu beharko dituzte, enpresaren garraio zerbitzuak ordaintzeko. Horrez gain, app-ean **publizitatea** txertatuko dugu eta horretarako AdSense aplikazioa erabiliko dugu. Klik bakoitzeko 0,99€ irabaziko ditugu.



Beste alde batetik, gure app-aren partaide izan nahi duten dendek urtean **kuota** bat ordaindu beharko dute. Lehenengo urtean, 70€-koa izango da eta hortik aurrera prezioa 100€ eta 120€ bitartera igoko da, denda motaren arabera.

Azkenik, bankuari **mailegu** bat eskatuko diogu enpresa sortzeko eta honek sortarazten dituen gastuak ordaintzeko.

